



Ari du, ari du, baina atertuko du.

Argazkia: Pham Trung Kien
Pixabay baimena

A top-down view of a person sitting at a wooden desk, looking distressed with their hands on their head. In front of them is an open laptop displaying the text 'Bihar ere argituko du eguna.' The desk is cluttered with various items: a white coffee cup on a saucer, a black camera lens, a clapperboard with 'HOLLYWOOD PRODUCTION' and other fields, a small potted plant, a black pouch with white and red star patterns, a Canon DSLR camera, a stack of papers, and a red pen.

Bihar ere
argituko du
eguna.

A wide-angle photograph of a beach at sunset. The sun is a bright orange orb on the horizon, casting a long, shimmering reflection on the water and sand. The sky is filled with dramatic, dark clouds illuminated from below by the setting sun, creating a palette of oranges, yellows, and deep blues. On the left side of the frame, a two-story wooden house with a balcony is visible, its interior lights glowing. The foreground shows the texture of the sand and some driftwood.

Argitu du.

Argazkia: Martin Schotte
Pixabay baimena



- Eguraldiaren eta eguratsaren egoera eta aldaketak adierazten dituzten hainbat aditz ditugu euskaraz. Hona zenbait:

aldatu, altxatu, argitu, atertu, berotu, epeldu, freskatu, gautu, goibeldu, hormatu, hoztu, ilundu, jaso, laburtu, lainotu, lanbrotu, leitu, lurmendu, luzatu, zabaldu, zuritu...

DU erregimeneko aditzak dira, eskuarki¹. Ez dute subjekturik. Inpertsionalak dira.

◇ Batzuetan, osagarririk gabe erabili ohi dira:

- **Argitu du.**
- **Atertu du.**
- **Berotuko du gaur.**
- **Freskatu du.**

¹Izan ere, DA erregimena ere onartzen dute aditz hauetariko batzuek. Esaterako, ILUNDUK: **‘Ilundu zen** arte eduki zuen bere etxean gordeta’.



Osagarririk gabe (adibide gehiago):

- **Gautu zuen, eta bertan ostatu hartu nuen.**
- **Hoztu du.**
- **Haizea ipar aldetik da; gaur **hormatuko du.****
- **Ilundu du.**
- **Lainotu zuen eguerdian.**
- **Lurmendu du.**
- **Elurra egin du, baina **ez du zuritu.****
- ...

  Besteetan, **osagarriren bat** lagun izaten dute. Hona zenbait adibide:

- **Haizea aldatu du.**
- **Bihar ere argituko du eguna.**
*Bihar ere argituko du **egunak**.
- **Haizea atera du** eta leihoak ixtera noa.
- **Elurra atertu du.**

 Osagarriren bat lagun (adibide gehiago):

- **Asko epeldu du eguraldia.**
- **Joan den hamabost egunean asko freskatu du eguraldia.**
- **Eztitu du denbora.**
- **Goxatu du gau-giroa.**
- **Hoztu du eguraldia.**



Osagarriren bat lagun (adibide gehiago):

- **Trumoaia joko du** iluntzea baino lehen.
- **Denbora lanbrotu du.**
- **Haize hotza mugitu du** berriz.
- **Goiza urratu zuen.** W. Goethe, *Hautapen ahaidetasunak*. Euskaratzailea: X. Mendiguren Bereziartu, 1992.
- **Eguna zabaldu zuenean¹, oso urduri zegoen faraoia.** *Elizen arteko Biblia*, Hasiera 41,8

¹ZABALDU aditzak ere onartzen du DA erregimena: ‘Eguna zabaldu zenean, ibaira joana zen gure txori txiki txilibitaria’.



● Badira beste zenbait aditz-egitura eguraldiaren eta eguratsaren egoera eta aldaketak adierazteko. Beste fitxa batean jorratuko ditugu horietako batzuk¹:

- Izena+ ad. kopulatiboa (*IZAN*): **Euria da.**
- Izena/Adjektiboa/Adberbioa + ad. kopulatiboa (*EGON*): **Ateri dago. Bero dago. Oskarbi dago.**
- Izena + aditz progresiboa (*ARI/JARDUN*): **Euria ari du. Elurra dihardu.**
- Izena + *EGIN*: **Euria egin du goizean.**
- Izena + *EKARRI*: **Euria dakar**
- Izena + *IBILI*: **Haizea dabil (*Haizea dago)**

¹Arteatx&Artiagagoitia 2018ko eskemari jarraikiz. Moldatua.

Gehiago jakiteko:

Arteatx, Iñigo; Artiagagoitia, Xabier (2018). "Eguraldiaren gramatika euskaraz eta Gramatikaren Teoria". *ASJU* 52(1-2), 33.-60.

"ITURRIKO" (2016/04/21). "Hotzitu dau. Ilundu dau. Euria egin dau". In *Bizkaieraren ataria*, www.bizkaiera.eus

Ortiz de Urbina, Jon. "Aditz inbertsonalak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg

Segurola, Iñaki (2014/12/12). "[\(...\)](#)". *31 eskutik*